



berriak

OSAKIDETZA

2015/10/19

OPE AUTOBUSAK

ELAk Donostia eta Barakaldoko azterketetarako autobusak antolatuko ditu. Oraindik azterketen ordutegirik ez dakigunez, jende guztia bertan azterketa baino bi ordu lehenago uzteko aurreikuspenarekin ari gara lanean. Afiliatutako pertsonentzat 8 eurotako kostua izango du eta afiliaturik ez daudenentzat 16koa. Jadanik izena eman dezakezue ELAren web orrian (ela.eus).

OPEko azterketetarako autobusak antolatzeko hainbat eskakizun jaso dugu, ondorioz, ELAk berauek antolatzeko erabakia hartu du.

Autobusak antolatuko ditugu bai Donostiako bai Barakaldoko azterketetarako.

Edonola, gutxieneko izen emate kopuru bat ziurtatu beharko dugu autobusen irteera bermatzeko. Horregatik ezinbestekoa da izen emateko datak errespetatzea:

- Donostiako azterketak: azaroak 12 aurretik. .
- Barakaldoko azterketak: abenduak 1 baino lehen.

Geltokiei eta ordutegiei buruzko informazio guztia gure web orrian prest duzue (ela.eus).

Autobusetan izena emateko web orriko izapidea bete behar duzue. Ondoren, gure kontu korrontean diru-sarrera burutu beharko duzue. **ORDAINKETA AGIRIA GORDETZEA OSO GARRANTZITSUA DA.**

Egun berean bi azterketa egin behar dituztenentzat goizean autobus batean eta arratsaldean beste batean bueltatzeko aukera izango da.

**EZ DUGU LOTERIARIK NAHI
OPE BAT NAHI DUGU!!**

